

getxoBerri



Getxo

bizi ezazu



#GetxoBiziEzazu

Doako alea

1451 zb.
www.getxo.eus

Apirilak 20
>> Apirilak 30

2017

/ Nabarmenezkoak

- > Ramiro Pinilla ibilbide literario gidatua (3. or.)
- > Toponimia ibilbideen beste edizio bat abian (3. or.)
- > %40 baino gehiago hazi da Garbigune Mugikorra erabili dutenen eta bildutako kiloen kopurua (4. or.)

Manuel Ibáñezek bildumak 5.000 antzinako postal baino gehiago gordetzen ditu (3. or.)



Kontzertua. Hilak 21, ostirala, 20:00etan, Corale San Salvatore de Susegana eta Getxoko Ondarreta Abesbatza, 20:00etan Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan.

A-GENDA

Liburu Azoka: Liburuak topaleku. Hilaren 27tik 30era arte, Algortako Geltokia plazan, goizez eta arratsaldez. Liburuek %10eko deskontua izango dute. Jolasak, tailerrak, hitzaldiak...

2016an 8.000 lagunentzako ikastaroak eta kirol federatuko 4.600 jarduera antolatu ziren

Getxo Kirolak-ek abonatu kopuruari eutsi dio, 27.000tik gora dira

Getxo Kirolak-ek 27.103 abonaturekin itxi zuen iazko ekitaldia. Kopuru hori 2015. urtekoaren oso antzekoa da (-2015ean 27.300 bazkide zeuden-), eta eutsi egin dio 2008tik izan den abonatu kopuruaren igoerari, 4.000 inguru gehiago baitaude. Getxo Kirolak-en jarduera-txostenetik ateratako datuen arabera, jende ugari parte hartu du kirol jardueretan, amateur, eskola eta federatu mailetan; eta instalazioak asko erabili dira.

Kiroltako zinegotzi Álvaro Gonzálezek onartu duenez, "urte zaila izan da Gobela ibaiaren ibilgua zabaltzeko obrak direla-eta Faduran izandako kalteak medio. Obrak, jakina, beharrezkoak ziren ingurunean uholde-arriskua murrizteko, baina udalerriko kiroldegi handirako sarrera ez ezik, zerbitzuak ere zaildu eta mugatu dituzte. Hala ere, hilabete hauetan jasotako datuen arabera, tokiko kirol-komunitateak aurreko denboraldietan bezain sendo eta jendetsu izaten jarraitzen du".

Neguko eta udako kanpainetan, 6.247 lagunek parte hartu zuten Fadura eta Gobela kiroldegietan emandako kirol-ikastaroetan. Eta horiei fitness eta muskulazio gimnasioetan izena emandako 1.700 lagun inguru gehitu behar zaizkie. Eskola-kirolari dagokionez, Lehen Hezkuntzako 2.100 ikasle inguruk parte hartu zuten Mul-



tikirolak eta igeriketa-programetan. Gainera, kirol federatuan, Fadura, Gobela eta Andra Mariko kirol-instalazioetan 4.600 lehiaketa gauzatu ziren; lehiaketa horietan 61.000 kirolarik baino gehiagok parte hartu zuten, 125.000 ikusle inguru bildu ziren eta beste 5.500 boluntario aritu ziren jarduerak antolatzen.

Instalazioen alokairuari dagokionez, padel-pistak erabili ziren gehien (ur-

tean 10.228 ordu), eta haien atzetik tenis-pistak (6.192 ordu) eta frontoiak (2.124 ordu).

Txosten ekonomikoa

Getxo Kirolak-ek, 2016. urtean, 9,2 milioi euro inguruko aurrekontua izan zuen; zenbateko horretatik, 3,6 milioi euro baino gehixeago tasen eta beste diru-sarrera batzuen bitartez

jaso zuen. Klubei eta tokiko kirolari ematen zaizkien laguntzei dago kienean, Getxo Kirolak-ek 1,1 milioi euro banatu zituen. Horrela, horietatik 495.000€ kirol federaturako izan ziren; 211.000€ udalerreri-eremuko kirol-eskolentzat; 237.000€ ekitaldiak antolatzeko; eta gainerakoa bertako kirolerako, herri-jaietako kirol-jardueretarako eta muturreko kiroleko ekimenetarako.

Izen-ematea udako kirol ikastaroetan

Getxo Kirolak-ek 1.700 plaza baino gehiago eskainiko ditu udako ikastaroetan (uztailean eta abuztuan) abonatuentzat. Horien artean, tenis, padel, futbol, igeriketa ikastaroak eta haurrentzako kirol-jarduerak izango dira. Azken horietan, egunero ordu bat ingelesez egingo da haurrekin, eta haurrak zaintzeko zerbitzua egongo da jardueraren ondoren. Gainera, *Kirollet@n* ikastaroa izango da Gobelan nahiz Faduran, 10 eta 14 urte bitartekoentzat, kirol anitzeko jarduerekin. Nobedade gisa, Getxo Futbol Eskolak (Faduran) eta Romo F.C-Arenas Clubak (Gobelan) *futboleando* ikastaroak emango dituzte.



Apirilaren 24tik maiatzaren 10era aurkeztu ahal izango da eskaera, Faduran eta Gobelan herritarrak artatzeko dauden bulegoetan edo webgunearen bidez. Online egiteko, NAN elektronikoa edo norberaren sarbide-gakoa behar da. Hori kiroldegietako bulegoetan eska daiteke, 8:00etatik 21:30era. Maiatzaren 12an zozketaren emaitza argitaratuko da webgunean eta informazio-tauletan. Plazak automatikoki esleituko dira, eta eskaera dagoen bitartean, pertsona bakoitzak soilik ikastaro batean eman ahal izango du izena. Plaza libreak geratuz gero, esleipen-prozedura errepikatuko da, eta pertsona bakoitzak gehien hiru ikastarotan eman ahal izango du

izena. Maiatzaren 12tik 18ra erreklamazioak, bajak eta ordutegi-aldaketak egiteko epea ezarriko da. Maiatzaren 19tik aurrera eskaintza osatu arte dauden plazak eskainiko dira. Tenis, padel eta igeriketako maila altuetan izena emateko, beharrezkoa izango da maila egiaztatzeko proba egun batzuk lehenago egitea. *Futboleando* ikastaroetan, izen-ematea klubekin zuzenean egingo da. Fadurakoan kontaktua da coordinador.getxofutboleskola@gmail.com edo 615 982 663; eta Gobelakoan, arenasromo-campus@gmail.com epostaren edo 657 268 606 telefono zenbakiaren bidez. Ikastaroei buruzko liburuxka: bulegoetan eta www.getxokirolak.getxo.eus.



APIRILAK 20 OSTEGUNA

Haur Zinema Jardunaldiak. Andrés Isasi Musika Eskolan, 17:00etan, "Mi amigo el gigante". 2,10€.

Ipuinaren ordua. Gobelako haur-liburuetan, 18:00etan, "Combatiendo el miedo", Bego Alabazaneekin. Sarrera dohainik.

Literatura solasaldia. Algortako Kasinon, 19:45ean, Patrick Modianoaren "Para que no te pierdas en el barrio" liburuarri buruzko solasaldia.

Getxon Zuzenean. Areetako El Comercio tabernan, 20:00etan, Lee Perk (rocka).

Liburu baten aurkezpena. "Getxo en sus calles. Con nombre propio", Javier Campo egilearen eta Begoña Zubieta kazetariaren eskutik, 20:00etan, Algortako Kasinon.

APIRILAK 21 OSTIRALA

Haur Zinema Jardunaldiak. Andrés Isasi Musika Eskolan, 17:00etan, "Angry birds, la película". 2,10€.

Kontularien kluba. Liburutegiak Topaleku. Algortako Kultur Etxean, 19:00etan, "Europa".

Kontzertua. Italiako Corale San Salvatore de Susegana eta Getxoko Ondarreta Abesbatzaren emanaldia, 20:00etan Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan.

APIRILAK 22 LARUNBATA

Literatura-ibilbide gidatua: Ramiro Pinilla. 3. orrialdean.

XXXIV. Haur Zinema Jardunaldiak. Andrés Isasi Musika Eskolan, 17:00etan, "El libro de la selva". 2,10€.

APIRILAK 23 IGANDEA

Literatura-ibilbide gidatua: Ramiro Pinilla. (beteta, ez dago lekurik).

Haurrentzako zinea. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 17:00etan, "Mascotas". Gaztelaniaz. 2,10€.

APIRILAK 25 ASTEARTEA

Gizatiar. Romo-Areetako giza- eta kultura-elkarteak. Renoirren erakusketara gidatutako bisitaldirako (maiatzak 4) izenemate eguna, Gobelareko lokalean, 11:00etatik 12:00etara. Bi talde: 12:30ean eta 17:30ean. Prezioa: 7€.

APIRILAK 26 ASTEAZKENA

Mugabarik. Norbanakoen trebatze eta garapenerako Elkartea. "Florentzia, bere historia eta bere arteari buruzko triptikoa". Hizlaria: Emilio Melón Ortega (Arte Ederretan aditua). Azken hitzaldia: "Brunelleschi", 19:30ean, Villamonteko Kultur Etxean.

Hitzaldi-debatea. "Cláusulas abusivas de la banca", Fernando Cuadradorren eskutik (abokatua), 19:30ean, Algortako Kultur Etxean.

APIRILAK 27 OSTEGUNA

Odol-ateratzea. Areetako Geltokia plazan, goizean eta 16:30etik 21:00etara.



GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK IRAILAREN 20TIK 30RA ARTE

Egunero:

22:00-09:00: ALZOLA. Arene 4, Algorta.

Hurrengo farmaziak asteburuetan ere zabalik egongo dira:

22 (LR) 09:00-22:00: LOBO. Makalata etorbidea 43, Algorta. JIMENEZ. Illeta 12, Algorta. LOPEZ-LINARES. Kasune 10 (Salsiduko kantoian), Algorta. EZQUERRA. Ollarretxe 27, Algorta.

10:00-22:00: BAYANO. Ibaigane 9, Areea. ANDRACA. Maidagan 61-A, Andra Mari.



Norberaren iragarkiak direnez gero, aldizkari hau ez da horien edukia erantzule izango.

Beka emakumeen elkartei buruzko lanerako

El asociacionismo femenino en Getxo (1960-2016) proposamenak irabazi du Udalak antolatutako Getxoko historian emakumeek egindako ekarpenari buruzko III. Ikerketa beka, 10.000€koa. Oraingoan zortzi proposamen aurkeztu dira eta aukeratutakoa urtearen amaierarako egon behar da amaituta. Proiektuak Getxoko emakumeen elkarten 1960tik orain arteko historia aztertuko du, gizarte getxotar anitza sortzera lagundu duten hainbat emakumek eduki duten eragiri aztertzeko, hain zuzen ere, balore, jarrera, esperientzia, aukera eta bizi-proiektu desberdinak. Aldi berean, elkarten papera aldarrikatuko du lanak,

udalerrian eduki duten eragin ekonomiko, sozial eta kulturala agerian utziz. "Idea da herriko historiara ikuspegi feministatik ekarpena egin ahal izatea, eta horrek denboran zehar emakume horiek egin duten lana edo udalerriko bilakaera historikoan eduki duten eragina ikustaraztea eta aldarrikatzea ahalbideratuko digu eta baita elkarten sarea bera elikatzea eta indartzera ere lagundu ahal izango du, historiaren azterketatik", azaldu du David Beorlegik berak. Lana aurrera eraman ahal izateko emakumei elkarrizketak egingo dizkie egileak, "artxiboetan dagoen emakumeen ikusezintasunak suposatzen duen zailtasuna gainditu ahal izateko", amaitu du Beorlegik.



1.520€ Karitateko Alabentzat

Sopelako Ander Deuna ikastolako Lehen Hezkuntzako ikasleek 1.520 euro batu dituzte zentroan egindako merkatu txiki batean, eta diru hori guztia Portu Zaharreko Karitateko Alabak erlijiosoei eman diete orain dela gutxi. Dena hasi zen kongregazioak ikastolari gonbidapena luzatu zionean ezagutarazteko aspalditik egiten duten lana Portu Zaharreko antzinako ikastetxean duten jantoki sozialean. Horren ostean, aipatutako merkatu txikia antolatu zuten erabilitako objektuak eta gozokiak saltzeko. Bildutako dirua ikastolan bertan eman zieten, oso hunkigarria izan zen ekitaldi batean.



Euskal kultur astea Zubiletan

Euskal kulturaren sakontzeko eta hobeto ezagutzeko, Zubileta HLHIK modu parte-hartzaile eta elkarreragilean hainbat ekintza burutu zituen apirilaren lehenengo astean. Besteak beste, tailerrak, kultura-arteotasuneko jardunaldiak, herri kirolak, antzerkia, ipuin kontalariak eta dantzak izan ziren.

Urpekaritza bataio solidarioak Fadurako igerilekuetan

Divertek eta Marefondum elkarteek urpekaritza bataioen bigarren edizioa antolatu dute datorren larunbaterako, apirilak 22, Fadurako igerilekuetan, Vencer el Cáncer fundazioaren aldeko ekimen solidarioa, hain zuzen. Bataioak urpekaritzan interesa duen edozein pertsonari daude zuzenduta, 17:30etik 21:30ak arte izango dira eta prezioa 15€ bataioa izango da. Bildutako diru guztia minbiariaren ikerketarako izango da. Informazio gehiago: marefondum@gmail.com

Irati Urbaneja Euskadiko kadete txapeldunorde

Irati Urbaneja getxotarra, Fadurako Tenis Klubea, Euskadiko txapeldunorde izendatu zuten, kadete mailan, hilaren hasieran Donostiako Real Club de Tenisen egindako txapelketan. Txapel-dunordea izateari esker, Espainiako Txapelketara joateko aukera izango du, ekainaren 19an Lleidako Club de Tenisen jokatu dena. Tenis jokalaria joan den martxoan Bizkaiko irabazlea izan zen Real Club Jolasetan eta iaizko denboraldian ere Euskadiko txapeldunordea izan zen.

LABURRAK

Aldaketak 2017. urteko zerga-egutegian.

Udalak ezagutzera eman ditu aldaketak aurtengo zerga-egutegirako. Aldaketa horiek 2017ko martxoaren 27an Alkatetzak agindutako 1109/2017 Dekretuaren bidez onartu dira. Horrela, ekainaren 1etik 30era arte honako zergak borondatez ordaintzeko epea izango da: Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga (TMIZ), Ondasun Higiezinen gaineko Zerga (OHZ), ibilgailuak finken barrura espaloietatik sartzeko eta aparkalekuak erreserbatzeko tasa (Pasabideak), taxien aparkalekuak erreserbatzeko tasa, bide publikoak okupatzeko tasa (kioskoak), ibilgailuak udal bide publikoetan aparkatzeko tasa (egoiliarren urteko txartelak: TAO) eta kutzazain automatikoak jartzeko tasa. Helbideratutako ordainketa egingo da borondateko epea amaitu ondorengo lehenengo egun baliodunean. Helbideratzeko eskabideak ekainaren 20ra arte onartuko dira. Informazio gehiago: <http://www.getxo.eus/eu/servicios/calendario-del-contribuyente>

Doako ikastaroak langabetuentzat.

Integrando fundazioak doako ikastaroak antolatu ditu Getxoko langabetuentzat. Fundazioak Romon du egoitza eta Bizkaiko Foru Aldundiak ematen dituen dirulaguntzak jasotzen ditu. Ikastaroak hiru tailer izango dira: Trebetasun Pertsonalak, Harremanetarako Trebetasunak eta Antolatzeko Trebetasunak. Ikastaroen helburuak dira gaur egun enpresek eskatzen dituzten trebetasunak lantzea: komunikazioa, talde-lana...; eta prestakuntza ematea lana aurkitzeko, ongizarterako, eta onuradunen harremanak hobetzeko. Horietan parte hartzeko ezinbestekoa da ondorengo baldintzetatik guxtien bat betetzea: langabezian egotea eta 45 urte baino gehiago izatea, luzaroko langabezi egoeran egotea edo gizartetik at egoteko arriskuan egotea. Informazio gehiago izateko deitu 94 491 43 75 (Begoña) telefonora, idatzi bmonje@fundacionintegrando.com posta elektronikora edo pasatu fundazio bulegotik (Luis López Osés kalea, 18 behea, Romo).

Hitzaldia emango du Areetari buruzko postal zaharra gaiaz, astelehenean, hilak 24, Portugaleteko Gran Hotelean

Manuel Ibáñezek bildumak 5.000 antzinako postal baino gehiago gordetzen ditu

Cartofilia edo deltiologia hitza da postalak biltzeko edo ikertzeko zaletasuna izendatzeko erabili ohi dena. Zaletasun hori da, zenbait iturriren arabera, hirugarren hobbyrik handiena, moneta edo zigiluen bildumak egitekoaren ondoren; munduan denbora-pasa bikaina da askorentzat, tartean Manuel Ibáñez Bárceñarentzat. Areetako auzotarra da, laister 67 urte beteko dituen ekonomista erretiroduna, bere burua 'tradizioaren aditu'-tzat jotzen duena. Bere kalkuluen arabera, 5.000tik gorako irudi bilduma dauka, posta-txartel zaharrena, hainbat gairi buruzkoak. 35 urtetik gora darama zaletasun hori lantzen, Castro Urdialesi buruzko txartelak biltzen hasi zenetik, jaio zen udalerrikoak. Orduz geroztik, bere bilduma partikularra hazi egin da Euskal Herriko zein munduko beste toki batzuetako irudiekin, eta horien artean, bizi den auzoari buruzko piezak nabarmentzen dira, Areetan.

"Jatorrizko piezak lortzea zaila da, posta-txartela, zaharra denez gero (Austrian sortu zen XIX. mende amaieran) ez baita merkaturuan erraz sarri aurki daitekeen gauza bat", aitortzen du Manuel Ibáñezek. Bildu dituenak osu bestelako gaietara buruzkoak dira, bitxiak eta originalak: suhiltzaileak, iragarkiak, kostunbristak eta abar. Gaur egun, berriak ere biltzen ditu, koloredunak barne, XX. mendeko 50eko hamarkadatik gaur egungora artekoak. Toki desberdinetan trukatuta, saldu edo erosi ditu postalak, hala nola Filipinetan zein Hegoamerikan. "Paradoxikoa bada ere, errazagoa da estatu espainiarreko postalak atzerrian aurkitzea hemen baino", onartzen du.

Bere postalik zaharrena, data zehaztasunez ezagutzen ez bada ere, XIX. mendeko azken hamarkadakoak da -Espainian lehenengoak 1895ean atera



ziren, dio-. Getxori buruz bilduma nahiko ona duela aitortzen du, eta Areetako artean bi dira bere kuttunenak: bata Ontziralekuarena, non igerilari batzuk agertzen diren, 20 eta 40 urte artekoak, garai hartako bainujantzi tirantedunekin jantzita, igeriketa lehiaketa batean; eta bestea, Abrako Itsas



Elkartearena, non bertako bazkideak ageri diren argazkilariaurrean paratuta, eraikineko sarrerako eskailetan; bazkide horien artean dira Sota, Guridi eta Getxoko beste familia ospetsuetako kideak.

Nahi duten guztiak, Ibáñezek eskainiko duen hitzaldira joan ahal izango

dira; Las Arenas de Getxo en la tarjeta postal antigua izenburupean, datorren astelehenean, hilak 24, egingo da hitzaldia Portugaleteko Gran Hotelean, 20:15etik aurrera (sarrera dohainik). Auzo horretako ehundik gora irudi erakutsiko ditu: itsasadarra ikusiko da, non Zubi Esekia izango den pieza garrantzitsuenak; Zugatzarteko pasealekua; kaia; antzinako urgaineko egotza; zenbait monumentu eta zenbait kale ere. Halaber, iragarki-postal batzuk ere sartuko ditu, beren obrekin artista batzuk Getxo inguruko enpresentzat irudiztatu zituztenak, baita beste irudi berriago batzuk ere -1950etik gaur egunera artekoak-, horiek ere esanguratsuak.

Toponimia ibilbideen beste edizio bat abian

Beste urte batez, Udalak toponimia ibilbideen beste edizio bat antolatu du, Bizarra Lepoanekin elkarlanean, ikastetxe, euskaltegi, elkarte eta herritarrentzat. Ibilbideak Hezeguneetatik, Kostaldeko Getxotik, Getxo Berritik, Betiko Getxotik, eta Punta Begoña Galerietatik izango dira. Parte hartzaileek udalerriko toponimia eta historia, ondare kulturala, paisaia, geologia, fauna eta abar ezagutuko dituzte, bi-hiru orduetan. Azalpenak euskaraz izango dira, eta norbaitek ulertzeko arazorik izango balu, bere mailara egokituko lirake azalpenak.

Lehenengo ibilbidea apirilaren 29an eta maiatzaren 22an izango da Hezeguneetatik (Bolue, Gobela ibaia eta Santa Coloma); maiatzaren 13an eta 31n Kostaldeko Getxotik (Getxo arrantzalea, Portu Zaharra, Algorta, Arri-gunagako labarrak, Aixerrota); maiatzaren 27an eta ekainaren 14an, Getxo Berritik (Neguri, Atxekolandeta, Kirol Portua eta Areetan), eta ekainaren 5ean eta 17an, Betiko Getxotik (Andra Mari, Azkorri, Galea) bizikiletaz. Ekainaren 10ean Punta Begoña Galerien barruko aldea bisitatuko da.

Doakoak diren ibilbideak larunbateran 09:30ean eta asteazken zehar 18:00etan hasiko dira. Informazioa: www.getxo.eus/eu/euskara/noticias/246 eta 688 635 350.



31 RAMIRO PINILLA IBILBIDE LITERARIO GIDATUA

"NARRAZIO HONETAKO LURRALDEA BENETAKO DA, ETA BADU IZENA: GETXO" (LA TIERRA CONVULSA)

DOHAINIK

TOPALEKIA:

- 1 - San Nikolas plaza/Algorta. **Nola heldi:** Algortako metroa (10€)
- 2 - Ormaiztegui parkoa. **Nola heldi:** Bizsabaldeko metroa (10€)

DATAK:

- 1 - Apirilaren 22an eta 23an.
- 2 - Ekainaren 3an eta 4an.
- 3 - Irailaren 16an eta 17an.

- Beste data batzuk galduta behar.

ORDUTEGIA: 10:30 - 13:30

HIZKUNTZA: Gaztelania.

BESTELANDAK: Aldiz aurtikio erortzea egin behar da.

GETXOKO TURISMO BULEGUA:
94 491 09 00 informaio@getxo.eus

Garbigune Mugikorra erabili dutenen eta bildutako kiloan kopurua %40 baino gehiago hazi da

Garbigune Mugikorraren udal zerbitzua emaitza oso onak ari da lortzen, 2016an zerbitzua zabaldu zenetik. Izan ere, zerbitzua erabili duten lagunen kopurua eta bertan utzitako hondakin kiloak ere %40 hazi dira, azken urtean. 2016an 9.000 lagun inguru izan ziren zerbitzua erabili zuten lagunak eta 24 tona hondakin baino gehiago bildu ziren, batez ere txatarra elektronikoa (5,5 tona), elektratresna txikiak (2,3 tona inguru), plastikoa (1,8 tona), metalezko gaiak (1,4 tona), Pb (berunezko) eta litiozko bateriak, sukaldeko osagarriak eta pintura hondakinak (1,3na tona), besteak beste.

2017ko lehen hiruhilekoari dagokionez, zerbitzua 3.000 lagun inguruk erabili dute eta 10 bat tona hondakin utzi dituzte.

Udalerriko beste lau gunetara eta as-

teko beste bi egun gehiagoz zabaldu zuten zerbitzua Udalak.

Utzi daitezkeen hondakinak

Puntu Garbi Mugikorraren zerbitzua -behar bezala identifikatu eta egokitutako ibilgailua- dohainik da. Bertan utzi daitezkeen hondakinak era askotakoak dira: olioak, pintura, laka eta bernizak, izotz-kontrakoak, disolbatzaileak, hidrokarburu hondakinak, iraungitako sendagaiak, hodi fluoreszente eta lanparak, pilak, hondakin elektronikoa, toner/tinta-kartutxoak eta CDak, besteak beste; eta horiez gainera, birziklatu daitezkeen tamaina ertaineko beste hondakin batzuk ere (elektratresna txikiak, txatarra...).

Hondakinak biltzerakoan sailkatu egiten dira eta baimendutako gestioegileen instalazioetara eramaten dira, ondoren

tratatu eta birziklatzeko. Modu horretan ez da kutsatzailerik isurtzen hondakin solidoen bilketako sisteman.

Garbigune Mugikorrarekin "ingurune natural zein hirikoan kontrolik gabeko isurketak saihestu nahi ditu Udalak, zaborrak biltzen dituzten ohiko zerbitzuen bitartez kendu ezin direnak; horrez gainera, jendea sentikor bihurtu nahi dugu arazo honekiko, ingurumena errespetatzen duen hondakinen gestioan bere konpromisoa sustatuz", adierazi du José Luis Landa Ingurumen zinegotziak.

Zerbitzua emateak -EMAUS SERVICIOS MEDIOAMBIENTALES arduratzen da horretaz-, aldi berean, dimentsio soziala ere baduela, laneratzeko enpresei zuzendutako programaren barruan egiten baita, Udalak bultzatuta. Horri esker, udalerriko bi langabeturi lana ematen zaie bi urtez.

Ordutegia

Garbigune mugikorra asteazkenetan Gobelaurre parkean egoten da, 18:00etatik 21:00etara; ostegunetan Salsidu-Ollarretxen, 10:00etatik 14:00etara, eta Gernika parkean, 18:00etatik 21:00etara; ostiraletan Andra Mari kiroldegian, 10:00etatik 14:00etara, eta Romo-Areetako Geltokia plazan, 18:00etatik 21:00etara; larunbatetan, Algortako Geltokia plazan kokatzen da, 10:00etatik 14:00etara, eta Bidezabalgo anbulatorioaren ondoan, 18:00etatik 21:00etara; eta igandetan Iturgitxi-Basarraten, 10:00etatik 14:00etara.



Kontsumo arduratsuari buruzko jardunaldia

Getxoko 12 ikastetxetako ikasleek kontsumo arduratsuari buruz hausnarketa egiteko aukera izan zuten duela gutxi Faturan antolatutako jardunaldi tekniko batean. Ingurumen hezkuntzako Eskolako Agenda 21 programan parte hartzen duten ikasleak dira, eta *Kontsumo arduratsua* da ikasturte honetan lantzen ari diren gai nagusia. Eskolako Agenda 21eko faseak betetzen ari dira ikastetxeak, gai horri buruz hainbat ekintza eginez. Adibidez, Ingurumen Aretoran gidatutako ibilbide eta tailerrak egiten ari dira, Udal Diagnostikoa prestatzeko. Hau da, lantzen ari diren gaiaren inguruan, Getxok dituen sendotasun eta ahuleziak aztertzen ari dira; izan ere, ezinbesteko ekintza da herria hobetzeko proposamenak sortu eta ikasleek beraien konpromisoak hartzeko irispide sendoetan oinarritzeko. Lantzen ari diren gaiari buruz gehiago ikasteko, aipatutako jardunaldi tekniko antolatu zen, bi saio egin zirelarik: *Agroekologia eta Kontsumo Arduratsua* eta *Ekoizpen Ekologikoa eta Kontsumo Arduratsua*.



getxo | R 2022 | %50 BIRZIKLATZEA DA ERRONKA RETO RECICLAJE 50%

GAI ORGANIKOETARAKO EDUKIONTZI MARROIA EZARRI DA

Zerbitzuan alta hartzen dutenek **KIT BAT JASOKO DUTE**, honako elementu hauekin: edukiontzia irekitzeko giltza elektronikoa; zakarrontzi aireztatu txiki bat (24,5cm x 28 cm x 31 cm); zer birziklatu daitekeen jakiteko iman bat, eta 50 poltsa biodegradagarriko biribilki bat (ezin baita plastikozko poltsarik erabili); hori amaitutakoan, poltsak saltegietan eta merkataritza-gune handietan erosi ahalko dira.



Alta hartu:

- Telefonoz: 94 464 43 80
- Online: www.getxo.info-citi.es
- Hiritarren Arreta Bulegoetan: Udaletxea, Areeta-Romo (Las Mercedes, 13), Algorta (Torrene, 3) eta Andra Mari (Benturillena, 17).

Erabili ezazu edukiontzi marroia

Lagun zazu planeta hobetzen!

